BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA, DONOSTIA ZINEMALDIKO GALETARAKO LAGUNTZA TEKNIKOA ETA IKUS-ENTZUNEZKO MATERIALAREN ALOKAIRUA KONTRATATZEKOA

Posta kutxatila - Aptdo. de correos 397
20080 Donostia / San Sebastián
T (+34) 943 481 212 E ssiff@sansebastianfestival.com
www.sansebastianfestival.com

I.- KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea Kursaal Jauregiko auditoriumean egingo diren inaugurazioko, klausurako eta Donostia Saria(k) emateko galetarako zein Victoria Eugenia antzokian egingo den Euskal Zinemaren Galarako ikus-entzunezko materiala hornitzea da, alokairu erregimenean, muntaketa, desmuntaketa, laguntza teknikoa eta mantentze-lanak barne hartuta.

Gauzatu beharreko zereginak ondoko hauek dira:

a) Ikus-entzunezko materiala alokatzea Kursaalen egingo diren inaugurazioko, klausurako eta Donostia Sariaren galak ospatzeko, eta Victoria Eugenia antzokian egingo den Euskal Zinemaren galarako, kontratua gauzatzeko beharrezkoak diren eta plegu honetan deskribatutako material tekniko guztien garraioa barne.

b) Teknikari-zerbitzua, muntaketarako, desmuntaketarako eta laguntza teknikorako, plegu honetan adierazitako banakapenaren arabera, eta Zinemaldiaren Ekoizpen sailak emandako argibideei jarraiki.

c) Matxuratutako edo egoera txarrean iritsitako material teknikoa berehala konpondu eta/edo ordezkatu beharko da. Hori horrela, Zinemaldiak eskubidea izango du galdatutako kalitate-estandarrarekin bat ez datozen materialak berehala ordezkatzea eskatzeko, gabetasun teknikoak, are estetikoak ere, direla medio.

II.- KURSAAL JAUREGIKO GALETAN EMAN BEHARREKO ZERBITZUAK

1.- Pantaila nagusia

Kontratuaren xede diren zerbitzuak emateko, esleipendunak instalazio bat egin beharko du, jarraian zehaztuko diren bi aukeretatik bat hartuta; horrez gain, dagokion zerbitzua emateko, beharrezko langileak eta bitarteko teknikoak jarri beharko ditu kontratua gauzatzerakoan. Zinemaldiak edizio bakoitzean zehaztuko du adierazitako instalazioaren beharra.

A AUKERA:

- Led pantaila, modulu zurrun edo malguekin, gehienez 45m^2-koa.
- Pixel arteko distantzia ez da 2,6mm-tik gorakoa izango.
- SMD 3-in-1 motako ledak baino ez dira onartuko.
- SSD RAID sistema duen eduki-zerbitzari bat beharko da.
- Kableak atzealdekoak izan beharko dira, pantailaren aurrealdetik ikusi gabe. Ez da kablerik atera behar markoaren ertzetik.
- Matxura gertatuz gero, pantaila osatzen duten moduluak azkar eta erraz ordezkatu ahal izango dira, alboko moduluak desmuntatu beharrik gabe.
- Altzairuzko kableak beltzak izan behar dira, inoiz ez altzairu kolorekoak.

B AUKERA:

- Proiekzio-pantaila panoramikoa, erretroproiekzioko oihalarekin, 45m^2-koa gehienez.
- 2 proiektore, 3 laser RGB, 4096x2160 bereizmena, 36.000 lumeneko potentzia, zuzenketa geometrikoko sistema, eszenografiaren premien araberako lenteak.
- SSD RAID sistema duen eduki-zerbitzari bat beharko da.

Bi aukeretarako honako hau eskatzen da:

- Irudi-prozesadorea edo eskalatzailea, gutxienez ondorengo ezaugarriekin:
  - 8 sarrera 4k 60hz (hdmi 2.0, hd sdi 12g), gutxienez.
  - 10 irteera 4k 60hz (hdmi 2.0, hd sdi 12g), gutxienez.
  - 8k sarrera bateragarriak.
  - 2 multimotor irteera gehigarri.
  - Gehienez 1 frame-ko (40ms) latentzia, audioan eta bideoan atzerapenak saihesteko. Fitxa tekniko bat entregatu beharko da eta, bertan, irudia prozesatzeko material guztiaren latentzia egongo da jasota,40ms-ak edo 1 frame gainditzen ez dituela ziurtatzeko.
  - Gutxienez 120 megapixel prozesu.
  - Denbora errealean SDR HDR bihurtzea, eta alderantziz.
  - Audioa kudeatzeko gaitasun bideratua eta independentea kanal bidez.
  - 64 kanaleko audio-matrizea.
- Beharrezkoa izango da back up gisa paraleloan lan egiten duten bi kontrolatzaile izatea.
- Seinalea HD SDI, DisplayPort edo HDMI formatuetan entregatu beharko da.
- Hornitutako materialak CE ziurtagiria izan beharko du eta aldez aurretik aurkeztu beharko zaio Zinemaldiko ekoizpen sailari.
- Koadro elektrikoek homologatuta egon beharko dute, eta homologazio hori Zinemaldiaren esku egongo da hark eskatzen duenean.
- Esleipendunak hornitu beharko du kable-sare guztia, baita euskarriak, tenkagailuak, luzagarriak, girgiluak, eslingak eta dagokion materialak ezartzeko beharrezko gainerako erreminta guztiak ere.

Bi aukeretarako, **azpitituluen pantailak** ere behar dira, eta ezaugarri hauek izan behar dituzte:

- Ledezko 3 pantaila, 3,5x0,5 m ingurukoak.
- Pixel arteko distantzia ez da 2,6 mm-tik gorakoa izango.
- SMD 3-in-1 motako ledak baino ez dina onartuko.
- Hiru irudi-prozesadore edo -eskalatzaile beharko dira, gutxienez HDMI edo HD-SDI sarrera banarekin, eta irudi-parametroak, distira, kontrastea, kolorearen tenperatura eta abar doitzeko gaitasunarekin.
- HDMI-zuntz-optikodun 3 igorle-hartzaile beharko dira, 250 metroko zuntzezko 3 arrabol dituztenak, itzulpen-kabinetako itzulpen-ordenagailuetatik seinale informatikoa bidaltzeko.
- Hornitutako materialak CE ziurtagiria izan beharko du eta aldez aurretik aurkeztu beharko zaio Zinemaldiko ekoizpen sailari.
- Kaxa elektrikoek homologatuta egon beharko dute, eta homologazio hori Zinemaldiaren esku egongo da hark eskatzen duenean.
- Esleipendunak hornitu beharko du kable-sare guztia, baita euskarriak, tenkagailuak, luzagarriak, girgiluak, eslingak eta dagokion materialak ezartzeko beharrezko gainerako erreminta guztiak ere. Altzairuzko kableak beltzak izan behar du, inoiz ez altzairu kolorekoa.

3.- Pantailen moduluak:

Lizitatzaileek pantaila-modulu zurrun edo malguen m^2 bakoitzeko prezioa eskaini beharko dute, diseinatutako eszenografiak A aukera zabaltzea eskatzen badu eskatzeko. Ezaugarri hauek izan beharko dituzte:

- Pantailen modulu zurrun eta malguak.
- Pixelen arteko distantzia ez da 2,6mm baino handiagoa izango.
- SMD 3-in-1 motako led-ak baino ez dira onartuko.
- Panelaren neurriak 500 x 500 x 71 mm-koak izango dira, eta gehienez 7,3kg-ko pisua izango dute panel bakoitzeko.

- Sistemak erabateko aldakortasuna bermatu beharko du proiektu eszenografiko konplexuetarako, honako gaitasun hauen bidez:
    - Konfigurazio hibridoa eta kurbatua. Hardwarea gai izango da gainazal berean modulu estandarrak integratzeko, forma konbexu eta ahurrak sortzeko aukera emango duten modulu malguekin.
    - Izkinako Instalazio Sortzailea (90º): ezinbestekoa da sistemak izkinan 90 graduko moduluak muntatzea, elkargunean ikus-jarraitasuna mantenduz pixelen matrizean eten nabarmenik gabe, kuboak eta inguratzaileak diseinatzeko aukera emanez.
- Hornitutako ekipoak Europar Batasunean eskatzen diren segurtasun- eta kalitate-ziurtagiriak izan beharko ditu (TUV-CE, CB, FCC eta IC), konkurrentzia handiko instalazio publikoetan haien fidagarritasuna bermatuz.

Hona hemen edizio honetan Kursaal Gunean egingo diren galen aurreikusitako egutegia:

Muntaketa: irailaren 14a astelehena, irailaren 15a asteartea.
Entseguak: irailaren 16a asteazkena, irailaren 17a osteguna.
Inaugurazio-gala: irailaren 18a ostirala.
Donostia Sariak: egunak zehaztu gabe, 2 edo 3 izango dira.
Klausura-gala: irailaren 26a larunbata.
Desmuntaketa: irailaren 27ko goizaldea, igandea.

III.- EUSKAL ZINEMAREN GALARAKO EMAN BEHARREKO ZERBITZUAK

1.- Pantaila nagusia

Kontratuaren xede diren zerbitzuak emateko, esleipendunak instalazio bat egin beharko du, jarraian zehaztuko diren bi aukeretatik bat hartuta; horrez gain, dagokion zerbitzua emateko, beharrezko langileak eta bitarteko teknikoak jarri beharko ditu kontratua gauzatzerakoan. Zinemaldiak edizio bakoitzean zehaztuko du adierazitako instalazioaren beharra.

A AUKERA:

- Led pantaila, modulu zurrun edo malguekin, gehienez 36m^2-koa.
- Pixel arteko distantzia ez da 2,6 mm-tik gorakoa izango.
- SMD 3-in-1 motako ledak baino ez dira onartuko.
- SS RAID sistema duen eduki zerbitzari bat beharko da.
- Kableak atzealdekoak izan beharko dira, pantailaren aurrealdetik ikusi gabe. Ez da kablerik atera behar markoaren ertzetik. Altzairuzko kableak beltzak izan behar dute, inoiz ez altzairu kolorekoak.

B AUKERA:

- Proiekzio-pantaila panoramikoa, erretroproiekzioko oihalarekin, 36m^2-koa gehienez.
- Proiektore bat, 3 laser RGB, 4096x2160 bereizmena, 36.000 lumeneko potentzia, zuzenketa geometrikoko sistema eta eszenografia premien araberako lenteak dituena.
- SS RAID sistema duen eduki-zerbitzari bat beharko da.

Bi aukeretarako honako hau eskatzen da:

- Irudi-prozesadorea edo eskalatzailea, gutxienez ondorengo ezaugarriekin:
    - Gutxienez HDMI edo HD-SDI sarrera duena, irudi-parametroak, distira, kontrastea, kolorearen tenperatura eta abar doitzeko gaitasunarekin.
- Hornitutako materialak CE ziurtagiria izan beharko du eta aldez aurretik aurkeztu beharko zaio Zinemaldiko ekoizpen sailari.

- Kaxa elektrikoek homologatuta egon beharko dute, eta homologazio hori Zinemaldiaren esku egongo da hark eskatzen duenean.
- Esleipendunak hornitu beharko du kable-sare guztia, baita euskarriak, tenkagailuak, luzagarriak, girgiluak, eslingak eta dagokion materialak ezartzeko beharrezko gainerako erreminta guztiak ere.

Bi aukeretarako, **azpitituluen pantailak** ere behar dira, eta ezaugarri hauek izan behar dituzte:

- Led-pantaila bat, 3,5x0,5 m ingurukoa.
- Pixel arteko distantzia ez da 2,6 mm-tik gorakoa izango.
- SMD 3-in1 motako ledak baino ez dira onartuko.
- Irudi-prozesadore edo -eskalatzaile bat beharko da, gutxienez HDMI edo HD-SDI sarrera batekin, eta irudi-parametroak, distira, kontrastea, kolorearen tenperatura ta abar doitzeko gaitasunarekin.
- HDMI-zuntz optikoaren igorle-hartzaile bat beharko da, agertokiaren sorbaldan dagoen itzulpen-ordenagailutik seinale informatikoa bidaltzeko.
- Hornitutako materialak CE ziurtagiria izan beharko du eta aldez aurretik aurkeztu beharko zaio Zinemaldiko ekoizpen sailari.
- Kaxa elektrikoek homologatuta egon beharko dute, eta homologazio hori Zinemaldiaren esku egongo da hark eskatzen duenean.
- Esleipendunak hornitu beharko du kable-sare guztia, baita euskarriak, tenkagailuak, luzagarriak, girgiluak, eslingak eta dagokion materialak ezartzeko beharrezko gainerako erreminta guztiak ere. Altzairuzko kableak beltza izan behar du beti, inoiz ez altzairu kolorekoa.

Edizio honetako Euskal Zinemaren Gala irailaren 22an izango dela aurreikusten da. Muntaketa eta desmuntaketa Zinemaldiko ekoizpen sailarekin adostuko dira. Muntaketa eta probak, betiere, galaren eguna baino lehen egingo dira. Aretoaren okupazioa dela eta, baliteke muntaketa eta desmuntaketa gaueko ordutegian egin behar izatea, edo, bestela, Zinemaldia baino lehen edo ondoren.

IV.- TEKNIKARIAK

Kontratuaren xee diren zerbitzuak emate aldera, esleipendunak langile teknikoak jarri beharko ditu kontratua gauzatzerakoan.

Enpresak kontratua gauzatzeko jarriko dituen langileen zerrenda bat eman beharko du, langile bakoitzaren CVarekin. CVek, halaber, bakoitzaren prestakuntza eta antzeko lanetan duten esperientzia jaso beharko dute.

Era berean, zerbitzu-arduradun baten figura zehaztuko da. Arduradun horrek, ekoizpen sailaren argibideekin, eginkizun hauek izango ditu, besteak beste:

- Zinemaldiarekin solaskide izatea.
- Muntaketaren aurreko bileretara joatea
- Zerbitzuaren funtzionamendu egokiaz eta garapenaz arduratzea, bai eta hari esleitutako langileez ere.
- Galetan esku hartzen duten gainerako gremioekin koordinatzea.

1.- Muntaketa:

Pantailen muntaketa behar bezala egiteko, esleipendunak muntaketa egiteko behar diren langileak aurkeztu beharko ditu, galen lan-planetan zehazten den bezala.

2.- Galak gauzatzea:

Inaugurazio Gala, Klausura Gala, Donostia Saria emateko gala eta Euskal Zinemaren Gala behar bezala gauzatzeko, gutxienez langile hauek beharko dira:

- Ikus-entzunezko errealizadore bat: entseguetan eta galan zehar displayetan edukiak kudeatzeaz eta emateaz arduratuko da.
- LED teknikari bat: instalatutako ekipoen funtzionamendu egokiaz eta doikuntzaz arduratuko da.
- Laguntzaile tekniko bat.